

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

52/2019 Foru Agindua, otsailaren 21ekoa, onartzen duena bete direla azaroaren 8ko 314/2018 Aginduan ezarritako baldintzak. Azken agindu horren bidez, behin betikoz onetsi zen, zenbait baldintzarekin, Aguraingo udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren 2. aldaketa puntualaren espedientea

AURREKARIAK

Lehenengoa. Azaroaren 8ko 314/2018 Foru Aginduaren bidez, behin betikoz onetsi zen Aguraingo udalerriko hiri antolamendurako plan orokorraren 2. aldaketa puntualaren espedientea, zenbait baldintzarekin.

Bigarrena. 314/2018 Foru Aginduak berak, kontuan hartuz aipatutako baldintzak ez zirela funtsezkoak, ezarri zuen ezen, haiek zuzendutakoan, aurkez zekiola espedientea Foru Aldundiari, berriro ere jendaurrean jartzeko izapidea bete beharrik gabe, behin betikoz onestearren, bete beharrekotasuna adieraztearren eta zegozkion eginbideak egin eta argitaratzearren.

Hirugarrena. 2019ko otsailaren 15ean, espedientearen testu bateratua sartu zen aldundi honen erregistroan.

OINARRIAK

Aurkeztutako dokumentazioa azterturik, egiaztatu da zuzendu direla aipatutako foru aginduan adierazitako kontuak.

Horregatik guztiagatik, dagozkidan eskumenez baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Betetakotzat ematea Aguraingo hiri antolamendurako plan orokorraren 2. aldaketa puntualaren espedientea zenbait baldintzarekin behin betikoz onetsi zuen aginduan (314/2018 Agindua, azaroaren 8koa) ezarritako baldintzak.

Bigarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beraren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAEko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzietarako salan. Horretarako, bi hilabeteko epea egongo da, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko otsailaren 21a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO